



## ■ **Industria aeroespaziala Kanadan**

Sektore-Herrialde txostenak

---

2024ko ekaina



## Disclaimer

*Txosten honetan jasotako edo txosten honekin lotutako informazio, ideia, iritzi, azterketa edo datu ororen erabilera txostenera sartzen den pertsonaren erantzukizuna izango da soilik. Basque Trade & Investment ez da inolaz ere txostenean jasotako informazioaren erabilerak eragindako edozein kalte, galera edo eragozpen zuzen edo zeharkakoren (behin-behineko kaltea eta lortu gabeko irabazia) eta egon daitezkeen akats edo omisioen erantzule egingo.*

*Basque Trade & Investment-ek behar diren baimen guztiak ditu dokumentu hau eta bere eranskinak prestatzeko horretarako erabilitako datu-baseen jabeek emandako informazioarekin; era berean, baimena lortu du dokumentu hau eta bere eranskinak banatzeko bakar-bakarrik bere hartzaileren artean.*

*Dokumentu hau eta eranskinak isilpekoak dira, eta bere hartzailerei bakarrik zuzentzen zaizkie. Guztiz debekatuta dago dokumentu horiek ezein bitartekoren bidez banatu, kopiatu eta osorik edo partzialki zabaltzea, salbu eta antolakunde barruan jasotzeko baimena duten pertsoneri.*

*Hartzailiak hitz ematen du ez duela isilpeko informazioa kudeatuko, erabiliko, ustiatuko edo ezein pertsona edo erakunderi helaraziko ezelango arrazoiengatik klausula honek agintzen duenaren kontra, salbu eta idatziz ematen bazaio horretarako baimena.*

*Dokumentu honetan eta bere eranskinetan jasotako informazioa baimenik gabe erabiltzeak eta konfidentziasun betebeharra ez betetzeak ondorio legalak izango ditu, eta Basque Trade & Investment-ek eskubidea izango du kalte-ordainak eskatzeko hartzailiak bere betebeharrak urratzeagatik gerta litezkeen kalteengatik.*



## Laburpen exekutiboa

Kanada munduko merkatu aeroespazial handienetako bat da, batez ere industria zibila duena (% 80). 2021 eta 2022 artean, Kanadako sektore aeroespazialak suspertze-zantzuak erakutsi zituen pandemia ostean. Izan ere, fabrikazioko sarrerak, lanpostuak eta BPGrekiko ekarpena ere handitu zituzten. 2022an, industriak ia 13.000 milioi dolarreko ekarpena egin zuen zuzenean herrialdeko Barne Produktu Gordinera (BPG) eta zuzeneko 86.000 enplegu sortu zituen.

Kanadako industria aeroespazialak bere produktu-gamaren dibertsifikazioari eutsi zion 2022an, hegan egiteko simulatzaile zibilen, motor zibilen eta aireontzi zibilen azpisailetan lehen bosten artean kokatu baitzen mundu mailan Zehazki, industriak lehen postua lortu zuen hegaldi zibileko simulagailuetan, lehen postua turbohelizeko motorretan eta helikopterozko motorretan, eta laugarren postua jets handietan eta helikopteroetan. I+G arloko gastua jaitsi arren, industriako lehen lekua mantendu zuen 2022an I+G arloko rankingean, Kanadako manufaktura-industria guztien artean.

Kanadako sektore aeroespaziala inportazioen mende dago neurri handi batean, batez ere Estatu Batuetatik egindakoen mende, hainbat hegazkin eta osagai osatzeko. Inportazio gehienak Kanadan kokatutako enpresa estatubatuarren eta europarren filialetatik datoz. Filial horiek, era berean, enpresa nagusietara eta nazioarteko beste merkatu batzuetara esportatzen dituzte produktuak. 2022an, Estatu Batuek egin zituzten industriaren inportazio gehien, eta ondoren Erresuma Batuak eta Frantziak. Atzerriko merkatuekiko mendekotasun horrek nazioarteko merkataritza-harremanen eta merkataritza errazten duten politiken garrantzia nabarmentzen du, hala nola Kanadaren eta Europar Batasunaren arteko Ekonomia eta Merkataritza Hitzarmen Globalaren (CETA) garrantzia.

Kanadako sektore aeroespazialaren balio-katea elkarrekin lotutako jarduera-sare konplexua da, multinazional handiak eta ETE espezializatuak barne hartzen dituena. Enpresa aeroespazialak batez ere Ontario, Quebec eta Columbia Britainiarrean kontzentratuta daude, eta industriaren % 91,8 biltzen dute. Ikuspegi geografikotik, Kanadako fabrikazio aeronautikoaren % 60 baino gehiago Quebecen egiten da eta % 25 inguru Ontarion. Aldiz, MROren (mantentze-lanak, konponketa eta azterketa) zerbitzu guztien ia % 40 Kanada mendebaldean ekoizten dira.

Pandemiaren osteko industriaren susperraldia gobernuaren babesak eta enpresen, akademiaren eta gobernuaren arteko lankidetzak bultzatu dute, eta horrek sektorearen eraginkortasuna eta berrikuntza-gaitasuna hobetu ditu. Potentzial handieneko eremuen artean daude abiazio jasangarria, dronen integrazioa eta simulazio-proiektuak, baita sateliteen diseinua eta fabrikazioa eta jaurtiketa-zerbitzuak ere. Zehazki, Montrealgo (Quebec) berrikuntza aeroespazialeko eremua industria aeroespazialaren epizentro global gisa azaleratzen ari da, garapen teknologikorako eta nazioarteko lankidetzarako aukerak eskainiz. Hala ere, sektoreak hainbat erronkari aurre egiten jarraitzen du, hala nola eskulan eskasiari eta tokiko enpresen lehiakortasuna eta gaitasuna handitzeko beharrari.

Kanadako merkaturan sartu nahi duten euskal enpresentzat, hasierako lankidetzak teknologikoko estrategia bat gomendatzen da, eta, ondoren, tokiko enpresekiko elkarrekin. Ekitaldietan parte hartzea eta kontaktu-sareak sortzea funtsezkoak dira Kanadako ekosisteman integratzeko. Enpresek epe luzerako inbertsiorako prest egon behar dute, hasierako sarbideak berehalako kontratuak ez dituela bermatzen ulertuta. Kanadako sektore aeroespazialaren hazkundea finantza-programa eta -tresna ugari babesten dute, I+G eta merkaturatzea errazten dutenak, nahiz eta horiek inbertsioa eta tokiko ekosistema ulertzea eskatzen duten.

**EUSKADI**  
BASQUE COUNTRY



Urkixo zumarkalea, 36-5. Solairua. Bizkaia Plaza eraikina  
48011 Bilbo [info@basquetrade.eus](mailto:info@basquetrade.eus)  
**(+34) 94 403 71 60**